

Getxo >MEETING<



Urtarrilak 20

**2022: Zure enpresaren helburuak zorrotzu!
Honela joan da GetxoMEETING saioa.**

Hona hemen urtea hasteko egin duguna.

Banakako galderak, zure enpresari buruzko "zergatik?" eta "zertarako?" galderei erantzuteko. Mugitzen zaituen horrekin birkonektatzeko.

- Zertarako existitzen da zure enpresa? Zein da zure bezeroengan sortzen duzun eragin positiboa edo onura? Gauza bat da eskaintzen duzuna, baina garrantzitsua da egiten duzun horren helburuarekin konektatzea.
- Zergatik aritzen zara horretan? Zein da zure barneko motibazioa aritzen zaren horretan lan egiteko? Zergatik sortu zenuen zure enpresa? Eragilea zein den jakitea lagungarria da motibazioa behean daukagunerako.

Helburuak ezartzea:

- Motibagarria: Zer lortu nahiko zenuke urtea amaitzen denerako? Zer lortu beharko zenuke ilusioz beterik egoteko?
- Ekonomikoa: Emaitza ekonomikei dagokienez, zeintzuk dira lortu nahiko zenituzkeen kopuruak? Diru-sarreraren edo onuren kopuruak (diru-sarrerak ken gastuak). Kopuru zehatzak idatzi.

- Komunikaziokoa, zabalkunderako. Komunikazioari dagokionez, zeintzuk dira lortu nahiko zenituzkeen helburuak? Marka gisa gehiago ezagutu gaitzaten nahi dugu, zure izena entzun dadin, baina baita jendeak zutaz hitz egin dezan ere.

Zure bezeroarengan sakonki pentsatzea. Gure hartzaileen tokian jartzeko, honako ariketa hau egin dugu:

Bezero posibleengan pentsatu dugu, norberak egin beharreko ariketaren bidez. Zein zen 2022. urtearen hasieran zeukan errealitatea? Zer behar du? Zer du gustuko? Zerk motibatzen du?

Ondoren, bigarren zatiari ekin diogu: Zeintzuk dira zuri ez deitzeko buruan dauzkan mugak? Zeintzuk dira dauzkan beldurrak, egiazkoak zein ez?